

'Arcoiris 82' Irati Gorostidi erakusketa Tabakaleran

Eszenaratzea gaitzen duen dimentsioa

NAIA ARANTZAMENDI

Entzun. Ukitu. Sentitu. Mugitzen diren gorputzen artean sortutako tentsio unek osatzen dute bideo-instalazioaren materiala; zehazki, Arco Iris komunitatean bizitako esperientziak dokumentatzen ditu Irati Gorostidi Agirretxe artista eta zinemagileak. Narrazioetik eta fikzioetik haratago doan esperientzia bat sortuz.

Ikusmira Berriak egonaldian lehen hastapenak eman zituen *Aro berria* Zinemaldiko New Directors sailean estreinatuko da, eta hain zuzen ere, bere lehen film luze horren grabaketan jaso eta argitaratu gabe geratutako materialak osatzen du bi bideo-instalazioek osatzen duten pantaila anitzeko erakusketa.

Next Step (Semaine de la Critique), FIDLab eta Locarno Residency aukeratua izan den filmak 1980ko hamarkadan Ultzamako bailaran finkatutako komunitatearen inguruko sorkuntza prozesuajart-

zen du erdigunean eta erakusketak eszenaratzeak gaitzen duen dimentsio bat erakusten du. Hala nola, Gorostidik proposatutako eszenaratzeen parte izan diren pertsonen gorputzetan jartzen du arreta lanak. Grabaketa prozesu ezberdinen bidez iraganeko garai bat birstortzeko zein berrikusteko ideari jarraituta. Zuzendariak une historiko jakin bat irudikatzeko moduak bilatu ahala, parte hartu zutenentzat benetako esperientzia bilakatu ziren.

Bi pantailak osatzen dute bideo-instalazioa 'Marathon' eta 'Samsara' piezekin, iluntasunak eskaintzen duen lasaitasuna bide-lagun hartuta. 'Arcoiris 82' erakusketak eszenaratzea gaitzen duen dimentsio bat erakusten du, antzezenaren eta bizipenaren mugetan murgiltzeko esperientzia bat proposatuz. Garaikidearen eta zinemaren arteko intersekzioa esploratzen duen erakusketa ildoan kokatzen da, Tabakaleran.



PABLO GÓMEZ



PABLO GÓMEZ



PABLO GÓMEZ

¡CÓMO
NOS GUSTA
EL CINE!

73
SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

EL
DIARIO
VASCO

egunero zurekin
cada día contigo